

## FUNTSEZKO BALIABIDEAK:

Gure proiektuak funtziona dezan, hainbat elementu garrantzitsu behar ditugu. Horietatik garrantzitsuena lurra da, hau da, industriagune bat behar dugu gure proiektua ekoizteko (fabrika bat, lokal bat...). Lur eremu horretan, gure enpresa kokatuko dugu eta han lankideak proiektua ekoizten egongo dira, baina baita ere gure mahai digitalari aurrerapenak egiteko ikerlariak egongo dira, eraginkorragoa izan dezan.

Aurrekoarekin bat eginez, gure enpresarako beste funtsezko baliabide bat langileak dira. Gure enpresan lan egingo duten langileek, gutxienez, goi mailako ikasketak beharko dituzte, produktua nola manipulatu eta teknologiak nola funtzionatzen duen zehazki jakin behar dutelako. Langile mota hauek lan fisikoa egingo dute, hau da, makinekin egongo dira lanean mahaia sortzen. Baina langile hauetaz aparte, beste langile mota batzuk egongo dira. Hauek, berriz, bulegoetan egongo dira lanean, langile intelektualak izango direnak eta hauek gure mahaia gauzatzen (diseinatzen, programak sortzen edo aukeratzen...) eta aurrerapenak egiten egongo dira. Aldi berean, informatikoak ere izango ditugu gure produktua sortzen eta sortutako arazoei aurre egiteko.

Gure proiektuari hasiera bat emateko, lehenengoz mahaiaren euskarria beharko dugu, metalurgian adituak diren langileak ahalbidetuko ditutena. Gure proiektuaren sorrera aurrera doan heinean beste langile batzuk, adibidez marketinean adituak, gure produktua zabaltzeko eta ezaguna egiteko ikerketak egingo dituzte. Langile mota hauek, gure bezeroak izan daitezken enpresekin harremanetan jarriko dira eta publizitatearen bidez gure produktua zabalduko dute. Baina publizitatea eta sare sozialen bidez ezaguna egin baino lehen, merkatuaren ikerketa bat egingo dute, bezeroa hobeto ezagutzeko eta haren nahiak hobeto asetzeko.

Beraz, web gune bat, sare sozialetarako perfil bat...

Hau dena baliabide izateko, garrantzitsuena dirua da. Hasieran gure produktua produzitzen hasteko finantziarioa hainbat elkarrekin ahalbidetuko digute, hala nola telefonikak. Denbora pasa ahala eta gure salmentak gorantz doan heinean, utzitako kapital hori elkarrekin bueltatuko diegu.